



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2019.02.25

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria

Nerea Letamendia Belloso

Jokin Azkue Arrastoa

Iñigo Alonso Sarasibar

Jarduneko Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzailea :

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretziko otsailaren hogeita bostean 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Aurreko akta onartzea.
2. Onartzea Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektuko obren 6. ziurtagiria (FV1-1901-0012 faktura).
3. Onartzea kontratazio-jardunbidea, Tolosako Udalerrian poltsa konpostagarriak erosteko hornidura kontratua esleitzeko, eta lizitazioari hasiera ematea.
4. Onartzea Bizibiziki, SLren eta Tolosako Udalaren arteko hitzarmenaren baitan 2019ko "Aktibatu" jardunaldiak gauzatzeko dirulaguntza ematea.
5. Onartzea Tolosaldea Garatzen 2019. urterako udal ekarpena eta lehen ordainketa egitea.
6. 85/2018, 86/2018, 4/2019 eta 5/2019 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko otsailaren 18an egindako batzarreko aktak aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.



2. ONARTZEA TOLOSAKO GUDARI KALEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUKO OBREN 6. ZIURTAGIRIA (FV1-1901-0012 FAKTURA).

Earki Arkitektoak S.Coop. Peq. p., enpresak ondorengo txostena egin du 2019ko otsailaren 8an Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko obrei buruz:

“TOLOSAKO GUDARI KALEA BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUKO OBREN 6. ZIURTAGIRIA (FV1-1901-0012 FAKTURA)

Tolosako Udalak Construcciones Campezo Obras y Servicios S.A., enpresari esleitu zion Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko proiektuko obren kontratua, 647.662,54 € (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa. Kontratuaren kopuru orokor horretan, ondorengoak dira Udalarari dagozkion atalak:

- Argindarra
 - Printzipala.....29.278,28 €
 - BEZa.....0,00 €
 - GUZTIRA.....29.278,28 €
- Gainerako partidak
 - Printzipala.....399.759,31 €
 - BEZa.....83.949,46 €
 - GUZTIRA.....483.708,77 €

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria (BEZik gabe).....0,00 €
1. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1807-0014.....5.559,05 €

2. ziurtagiria (BEZik gabe).....0,00 €
2. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1808-0054.....7.675,94 €

3. ziurtagiria (BEZik gabe).....FV1-1809-0065.....5.546,27 €
3. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1809-0064.....42.533,17 €

4. ziurtagiria (BEZik gabe).....FV1-1810-0031.....2.728,24 €
4. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1810-0030.....70.417,24 €

5. ziurtagiria (BEZik gabe).....FV1-1811-0058.....20.153,02 €
5. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....FV1-1811-0057.....180.991,09 €

GUZTIRA.....335.604,02 €



TOLOSAKO
UDALA

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako seigarrena, honakoa da:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
6. ziurtagiria (BEZik gabe).....	-----	0,00 €
6. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	FV1-1901-0012.....	78.715,48 €
GUZTIRA.....		78.715,48 €

Ziurtagiri horretan ez dago argindar sarearen berrikuntzarik sartuta.

Ziurtagiria aztertu ondoren, **ontzat ematen da.**"

Aurrekoa ikusirik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ontzat ematea Tolosako Gudari kalea berrurbanizatzeko obran 6. ziurtagiria:

6. ziurtagiria (% 21eko BEZa barne).....78.715,78 €

BIGARREN.- Erabaki honen berri ematea *Construcciones Campezo Obras y Servicios S.A.* enpresari eta Kontuhartzaitzari

3. ONARTZEA KONTRATAZIO-JARDUNBIDEA, TOLOSAKO UDALERRIAN POLTSA KONPOSTAGARRIAK EROSTEKO HORNIDURA KONTRATUA ESLEITZEKO, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK

Kontratuaren xedea:	Tolosako udalerrian poltsa konpostagarriak erosteko hornidura kontratua.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena
Espedientea:	2019HABI0001

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.



2.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko ingurumen teknikariak 2019ko urtarrilaren 7an egindako txostenaren bitartez, aipatutako xedea duen kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio klausula partikularren plegua, baldintza teknikoen plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria eta Idazkaritza eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen ziren jardunbidea burutu ahal izateko.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere IV. Kapituluaren (298. artikulutik aurrera), Hornidura kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, alokairua, egikaritzea, prezioaren ordainketa eta kontratua etetea beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Aipatutako txostenean, administrazio baldintza partikularren plegua osatzeko oinarritzko datuen inguruan egindako txostenean, kontratuaren xehetasunak aipatu zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, bermealdia eta esleipen irizpideak.

Laugarrena.- Halaber aipatutako txostenean, SPKLaren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du bere 28. artikuluan: *“Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publikizaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.”.*

3.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, bere 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea osatu behar da. Espedientea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.



TOLOSAKO
UDALA

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Administrazio baldintza zehatzen agiria osatzeko oinarriko datuen inguruko txostena, non baliabide propioak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Baldintza teknikoaren plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.

Halaber, espedientea osatu beharko da Kontuhartzailearen txostenarekin.

Kontratu honek, administrazio-izaera du 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 25.1 artikulua a) atalean xedaturikoarekin bat; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 16. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten du: *“16. artikulua. Hornidura-kontratua. 1. Hornidura-kontratua da produktu edo ondasun higigarriak eskuratzea, finantza-errentamenduan hartzea edo erosteko aukerarekin zein gabe errentan hartzea duena objektutzat. 2. Ez dira hornidura-kontratutzat joko jabetza gorpuzgabei eta balore negoziagarrii buruzko kontratuak, baina objektutzat ordenagailu-programak dituzten kontratuei buruz artikulua honen 3. apartatuaren b) letran xedatutakoa ahaztu gabe. 3. Nolanahi ere, kontratu hauek joko dira hornidura-kontratutzat: a) Enpresaburuak hainbat ondasun hurrenez hurren eta unitateko prezioa entregatzera behartzen duten kontratuak, kopuru osoa kontratua egiteko unean zehaztasunez mugatu gabe egindakoak, ondasunak eskuratu behar dituenaren premien arabera egiteagatik entregak. b) Objektutzat telekomunikazio-ekipamenduak edo sistemak edo informazioa tratatzeko ekipamendu eta sistemak eta horien dispositibo eta programak eskuratu eta errentan hartzea dutenak, baita programak erabiltzeko eskubidea lagatzeko ere, eskura jartzeko edozein modalitatetan, neurrira garatutako ordenagailu-programak eskuratzeko kontratuak izan ezik, horiek zerbitzu-kontratutzat joko dira eta. c) Fabrikazio-kontratuak, enpresaburuak horien bidez entregatu behar dituen gauzak (edo gauza) erakunde kontratatzaileak alde aurretik ezarritako ezaugarrien arabera egin behar direnean, nahiz eta erakunde kontratatzaileak bere gain hartu horretarako behar diren materialak osorik edo partez entregatzeko betebeharra. d) Lehen mailako energia edo energia eraldatua eskuratzeko aukerak objektutzat.”.*

Bestalde, kontratu honetan ondokoa kontuan izan behar da:

Lehena.- Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta, **161.400,00 eurokoa** dela.



	Lote 1	Lote 2	Lote 3	Guztira / Total
Lizitazioaren zenbatekoa (BEZ gabe)	80.000,00 €	19.800,00 €	7.800,00 €	107.600,00 €
Luzapenak (BEZik gabe)	40.000,00 €	9.900,00 €	3.900,00 €	53.800,00 €
BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA	120.000,00 €	29.700,00 €	11.700,00 €	161.400,00 €

2019 unidades			
	10 L	45 L	120 L
enero			
febrero			
marzo			
abril	FIRMA DEL CONTRATO		
mayo	266.667	27.500	5.000
junio			
julio			
agosto			
septiembre	266.667		
octubre			
noviembre		27.500	5.000
diciembre			

2021 unidades			
	10 L	45 L	120 L
enero	266.667		
febrero			
marzo			
abril			
mayo	266.667	27.500	5.000
junio			
julio			
agosto			
septiembre	266.667		
octubre			
noviembre		27.500	5.000
diciembre			

2020 unidades			
	10 L	45 L	120 L
enero	266.667		
febrero			
marzo			
abril			
mayo	266.667	27.500	5.000
junio			
julio			
agosto			
septiembre	266.667		
octubre			
noviembre		27.500	5.000
diciembre			

2022 unidades			
	10 L	45 L	120 L
enero	266.667		
febrero			
marzo			
abril			
mayo			
junio			
julio			
agosto			
septiembre			
octubre			
noviembre			
diciembre			

Urtea / Ejercicio	Unitateak / unidades			Balio zenbatetsia <i>Valor estimado</i>	Urteko kuota (BEZ barne) <i>Anualidad (IVA incluido)</i>
	10 L	45 L	120 L		
2019	533.333	55.000	10.000	40.466,67	48.964,67
2020	800.000	55.000	10.000	53800,00	65.098,00
2021	800.000	55.000	10.000	53.800,00	65.098,00
2022	266.667	-	-	13.333,33	16.133,33
Guztira / Total				161.400,00 €	195.294,00 €

Hori horrela, nahiz eta hornidura kontratuak 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), bere 19 artikulua arabera, araudi armonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan, kasu honetan, 21. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen ez duenez (221.000 €), ez zaio araudi horri lotzen. Halaber, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia tartekatu ahal izango



da, aipatutako Legearen 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen baitu.

SPKLren 99.3 artikulua hau xedatzen du loteetan banaketari buruz: *“Siempre que la naturaleza o el objeto del contrato lo permitan, deberá preverse la realización independiente de cada una de sus partes mediante su división en lotes, pudiéndose reservar lotes de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional cuarta. No obstante lo anterior, el órgano de contratación podrá no dividir en lotes el objeto del contrato cuando existan motivos válidos, que deberán justificarse debidamente en el expediente, salvo en los casos de contratos de concesión de obras.”.*

Beraz, aurrekoa kontuan harturik, kontratua hiru loteetan desberdinetan banatu da;

LOTE 1: 10 litroko ontzietan erabiltzeko poltsa konpostagarriak

LOTE 2: 45 litroko ontzietan erabiltzeko poltsa konpostagarriak

LOTE 3: 120 litroko ontzietan erabiltzeko poltsa konpostagarriak

Hala ere, lizitatzailleek euren proposamenak hiru loteetara edo horien konbinazio desberdinetara aurkeztu ditzakete, inongo murriztapenik gabe.

Bigarrena.- Bestalde, Baldintza Administrazioen Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta honen I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL.k bere 86, 87, eta 89. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Halaber, eta ordainagirien ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa: *La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de las certificaciones de obra o de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los bienes entregados o servicios prestados, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 210, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales. Para que haya lugar al inicio del cómputo de plazo para el devengo de intereses, el contratista deberá haber cumplido la obligación de presentar la factura ante el registro administrativo correspondiente en los términos establecidos en la normativa vigente sobre factura electrónica, en tiempo y forma, en el plazo de treinta días desde la fecha de entrega efectiva de las mercancías o la prestación del servicio.*

4.- ESPEDIENTE MOTA

SPKLak bere 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: *“geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren*



kontratuen espedienteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espedienteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta". Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: "hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan..."

Kasu honetan, ez da Legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espediente hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Partikularren Plegua 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritik.

5.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Hornidura kontratua gauzatzeko gehieneko epea **BI URTEKOA** izango da, **2019ko apirilaren 1ean hasita eta 2021eko martxoaren 31ra arte; beste urtebeteko luzapena aurreikusten delarik 2021eko apirilaren 1etik 2022ko martxoaren 31ra arte.** Epe hori kontratua sinatu eta hurrengo egunean zenbatzen hasiko da.

Lizitazioaren prezioa (BEZik gabe)	BEZ aplikagarria	Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZa barne)
Lote 1: 80.000,00 €	Lote 1: % 21	Lote 1: 96.800,00 €
Lote 2: 19.800,00 €	Lote 2: % 21	Lote 2: 23.958,00 €
Lote 3: 7.800,00 €	Lote 3: % 21	Lote 3: 9.438,00 €
Guztira / Total: 107.600,00 €		Guztira / Total: 130.196,00 €
Aurrekontu-partida	0700.221.99.162.10	
Prezioa zehazteko sistema	UNITATE PREZIOKA / POR PRECIOS UNITARIOS	

Oinarritzko lizitazio aurrekontua ondoko hau izango da: 130.196,00 euro, horietatik 107.600,00 euro printzipala eta 22.596,00 euro BEZari (% 21) dagozkionak.

Halaber, kontratu honen **balio zenbatetsia** 161.400,00 eurokoa da.

Bestalde, garrantzitsua da aipatzea, kontratuaren xede diren lanak, **0700.221.99.162.10** aurrekontu-partidaren kargura finantzatzeko direla.

Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.



6.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn jasotako esleipenerako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: *“La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...”*

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espediente honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta batik bat ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritziz delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLaren 156, 157, 158 eta 159 artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta bere I. eranskinaren 10. eta 18. idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145., 156., 157. eta 158. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedearekin lotura dutenak hain zuzen ere.

Kasu honetan, SPKLk 145. artikuluan xedatutakoa betetzen da:

“1. La adjudicación de los contratos se realizará utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio. 2. La mejor relación calidad-precio se evaluará con arreglo a criterios económicos y cualitativos. Los criterios cualitativos que establezca el órgano de contratación para evaluar la mejor relación calidad-precio podrán incluir aspectos medioambientales o sociales, vinculados al objeto del contrato... 4. Los órganos de contratación velarán por que se establezcan criterios de adjudicación que permitan obtener obras, suministros y servicios de gran calidad que respondan lo mejor posible a sus necesidades; y, en especial, en los procedimientos de contratos de servicios que tengan por objeto prestaciones de carácter intelectual, como los servicios de ingeniería y arquitectura... 5. Los criterios a que se refiere el apartado 1 que han de servir de base para la adjudicación del contrato se establecerán en los pliegos de cláusulas administrativas particulares o en el documento descriptivo, y deberá figurar en el anuncio que sirva de convocatoria de la licitación. Se considerará que un criterio de adjudicación está vinculado al objeto del contrato cuando se refiera o integre las prestaciones que deban realizarse en virtud de dicho contrato, en cualquiera de sus aspectos y en cualquier etapa de su ciclo de vida,...”

Azkenik, berme-epari dagokionez, urtebeteko epea ezarri da eta SPKLren 111.5. artikulua azken idatz-zatian xedaturikoa betetzen bada, epe hau 6 hilabetekoa izango da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez baitu 1.000.000 euroko zenbatekoa gainditzen.



TOLOSAKO
UDALA

7.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

Kontratazio-espediterekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

8.- KONTRATAZIO-ORGANOA

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eta ezarritako zenbatekoak gainditzen ez direnez, eskumena alkate-udalburuarena da. Hala ere, Tolosako Udalaren kasuan, udal honetako alkate-udalburuak 2015eko uztailaren 28an emandako Dekretua kontuan hartuz, eskumena Tolosako **Tokiko Gobernu Batzarrari** dagokiola ondorioztatu du idazkari honek.

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariaren proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako udalerrian poltsa konpostagarriak erosteko hornidura kontratuaren espeditentea.

BIGARRENA.- Lizitazioari hasiera ematea eta oinarritzko lizitazio aurrekontua onartzea. Oinarritzko lizitazio aurrekontua ondoko hau izango da: 130.196,00 euro, horietatik 107.600,00 euro printzipala eta 22.596,00 euro BEZari (% 21) dagozkionak. Halaber, kontratu honen balio zenbatetsia 161.400,00 eurokoa da.

HIRUGARRENA.- Kontratazio honen xede den hornidura kontratua gauzatzeko gehienezko epea BI URTEKOA izango da, 2019ko apirilaren 1ean hasita eta 2021eko martxoaren 31ra arte; beste urtebeteko luzapena aurreikusten delarik 2021eko apirilaren



TOLOSAKO
UDALA

1etik, 2022ko martxoaren 31ra arte. Epe hori kontratua sinatu eta hurrengo egunean zenbatzen hasiko da.

LAUGARRENA.- Kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

BOSGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (**jardunbide irekia**) eta dagokion iragarkia argitaratzea Tolosako Udaleko kontratugilearen profilean, lizitatzailleek beren proposamenak **20 egun naturaleko** epean aurkez ditzaten, iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

4. ONARTZEA BIZIBIZIKI, SLREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN BAITAN 2019KO "AKTIBATU" JARDUNALDIAK GAUZATZEKO DIRULAGUNTZA EMATEA.

AURREKARIAK

Azken bost urteotan (2014-2018) Tolosako Topic-en, Bizibiziki aholkularitzak, Aktibatu jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi hauek **berrikuntza**, **natur turismoa** eta **iraunkortasunarekin** erlazionatutako gaiak jorratu dituzte eta sektoreko profesionalei, enpresaburuei, tokiko eta eskualdeko eragile publikoei etengabeko trebakuntza emateko eta dibulgaziorako elkargune bat izateko asmo du. Azken urteetako jardunaldien balorazioa positiboa izan da eta jardunaldi hauek, Elkarte Autonomoan, natura turismoko erreferente bihurtzen ari dira.

1- Bizibiziki S.L-k, 2019ko urtarrilaren 9ko sarrera data duen idatzi baten bidez, (290. zenbakia) 2019ko jardunaldiak ospatzeko dirulaguntza eskaera egin dute.

2- Elkarteak Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko betebeharrak betetzen ditu eta beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen ditu dirulaguntza jaso ahal izateko. Diruz lagunduko diren jarduerak bat datoz Elkartearen Estatutuetan araututako xedearekin.

3- Bizibiziki aholkularitzak 2019ko otsailaren 7an proposamena egin zuen berriz ere jardunaldi hauek Tolosan egiteko. Udalak beharrezkotzat jotzen ditu horrelako ekimenak sustatzea, Tolosan naturarekin eta iraunkortasunarekin zerikusia duen turismoa bultzatzeko eta Tolosako landa eremuaren garapenean aukera berriak aztertzeke ekimen baliagarriak baitira. Hori dela eta, 2019ko udal aurrekontuetan, Ingurumenetik 8.000 € gorde dira modu izendunean jardunaldi hauek diruz laguntzeko 0600 481.01. 17200 zenbakidun partidan.

Izan ere, egitasmoaren azterketa egin ondoren, ekimen berak duen balioa ingurugiroaren eta turismoaren inguruan eta Tolosarentzat zentzu guztietan suposatzen duen onura



TOLOSAKO
UDALA

aztertu ondoren, Bizibiziki, S.L., enpresari aipatutako dirulaguntza ematea proposatu du teknikariak eta txosten juridikoa eskatu du.

AZTERKETA JURIDIKOA

1.-Oinarri juridikoa eta Udalaren eskumena Toki-Administrazioaren Arrazionalizazioa eta Iraunkortasuna arautzen dituen abenduaren 27ko 27/2013 Legea indarrean sartu ondoren, aipatu Administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eskuduntzen sistema aldatu egin zen. Zehazki, ondoko aldaketa hauek eragin zituen lege berriak:

- udal eskumenen sailkapena egin zituen: udalen eskumenen artean berezkoak, delegatuak, eta bestelakoak bereizi ditu lege berriak.
- udalen berezko eskumenen gaiak murriztu egin ditu.
- udalen eskumenen egikaritzea ekonomia eta finantza jasangarritasunaren irizpideen menpe jarri ditu.

Era honetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gainera bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikaritzeko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2 artikulua b) atalak udalek, besteak beste, " hiri ingurumenaren" eskumenak beteko dituztela xedatzen du, betiere, Estatu eta Autonomia Erkidegoko legedian ezarritako moduan.H) apartaduan ere aipatutako eskumenak ematen dizkio turismoari buruzko iharduerak garatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzten eskumen propioak zehazten ditu; 17.1.8.artikulua arabera udalerriek, besteak beste, ondorengo esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:"Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.

Kontuan hartu behar da, era berean, 22. apartatua: "Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea".



TOLOSAKO
UDALA

2. Udalaren sustapen-neurriak eta dirulaguntzak. Prozedura:

Toki-Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua arautzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 24. eta hurrengo artikuluek, udalen sustapen-egintza onartu eta xedatzen dute, horien barruan diru laguntzak emateko ahalmena onartzen zaielarik. Bestaldetik, era orokorrean, herri-administrazioen laguntzak ondoko hiru araudi nagusi hauek arautzen dituzte:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra
- Lege hori garatzen duen 2006ko uztailaren 21eko Erregelamendua
- Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorra.

Arautegi horien arabera, dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka bidezkoa da.

Halere, **zuzenean eman daitezke** honako dirulaguntza hauek:

a) Toki-entitateen aurrekontu orokorretan aurreikusitako dirulaguntza izendunak, dirulaguntza horien hitzarmenetan eta araudian jasotako baldintzetan.

Hauexek dira toki-entitateen aurrekontuetako dirulaguntza izendunak: helburua, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna zehaztuta dituztenak aurrekontuaren gastuen orrian.

b) Lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaizkion diru laguntzak edo zenbatekoak; dirulaguntza hauek emateko, arauaren beraren arabera aplikatu beharreko prozedura jarraitu beharko da. Bestalde, dirulaguntza hauek erregulatuko dituzte lege-mailako arau horrek berak eta dagokion administrazioari berariaz aplikatu beharrekoak direnek.

c) Salbuespenez, honako dirulaguntza hauek eman daitezke zuzenean: interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitariokoak tarteko direla justifikatzen dutenak eta halako laguntzak emateko deialdi publiko bat egitea ezinezkoa dela ere justifikatzen dutenak justifikazio arrazoituaren eta agiri bidezko memoriaren bidez.



Dirulaguntzak eman aurretik, onartuta egon behar dute haien oinarri erregulatzaileak ezartzen dituzten arauak.

Legeriaren arabera, aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunen kasuan, dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena bera dirulaguntzak emateko oinarri arautzailetzat joko da; era berean, hitzarmenak dirulaguntzen Lege Orokorreko 28.3 artikuluko elementuak jaso beharko ditu¹.

Dirulaguntza zuzenean emateko prozeduraren oinarritzko ezaugarria da ez dela exijitzekoa publizitatearen eta norgehiagokaren printzipioak betetzea, eta lehen aipatu bezala, Legean aurreikusitako kasu horietan soilik aplika daiteke. Hori bai, kontuan izan behar da ematen diren dirulaguntza guztiak haien datu-basera bidali behar direla (BDNS-Banco de Datos Nacional de Subvenciones), egintza erregistragarriak gertatu ahala bidali ere, eta helarazi behar direla egintza gertatu eta hurrengo hilabete naturala bukatu baino lehen².

Era berean, kontuan izan behar da ondorengo betebeharrak hau ere³: Subentzio edo laguntza publiko batek deialdia egitea ez badu derrigorrezko, hura ematen duen organoak BDNSn erregistratu beharko ditu datu egituratuak, honako epe hauetan: xedapen arautzailea argitaratu eta berehala, baldin eta subentzioak edo laguntzak hartzaile zehazturik ez badu; eta ematen den momentuan, gainerako kasuetan. SNPS-DPSNK (Sistema Nacional de Publicidad de Subvenciones-Dirulaguntzen Publizitate Sistema Nazionala) berehala egingo du datu horien publizitatea, eta ez da aplikagarria izango 72 orduko epea, bosgarren xedapenean ezarrita dagoena; era berean, ez da beharrezkoa estraktua aldizkari ofizialean argitaratzea.

Xehetasunean, Legedi hau aplikatu behar da:

- Dirulaguntzen udal ordenantza. Kasu honetan, dirulaguntza izendunak udal ordenantzako 13.3,a eta 18-22 artikuluek arautuko dituzte.

— 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena; 21., 22., 25. eta 72. artikulua.

¹ 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2006 dirulaguntzen Lege Orokorren erregelamendua onartzen duena; 65.3 artikulua, bigarren paragrafoa; 67.2 artikulua, bigarren paragrafoa.

² 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, 28.3 artikuluan agertzen den Errege Dekretua.

³ Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20.8.b artikulua, ondorengo honetan garatua: Estatuko Administrazioako Interbentzio Orokorren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9koa; 4.2 artikulua.

³ Estatuko Administrazioako Interbentzio Orokorren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ekoa; seigarren artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

— 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, toki-korporazioen zerbitzuen araudia onartzen duena; II. Titulua.

— 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa; 9.2, 22.2, 28., 30. eta ondorengoak.

— 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua; 55., 65., 66. eta 67. artikulua. Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zuten.

— Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 10ean emana. Horren bidez arautzen da zer prozesu jarraitu behar den Diru-laguntzen Publizitate Sistema Nazionalan (SNPS) subentzio eta laguntzen deialdien erregistroa eta publizitatea egiteko.

— Estatuko Administrazioiko Interbentzio Orokorraren Ebazpena, 2015eko abenduaren 9an emana. Horren bidez arautzen dira Diru-laguntzen Datu-Base Nazional berriari eman beharreko informazioaren edukia eta maiztasuna.

---40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arena. Konkretuki, 47-53 artikuluetan zehaztutakoa. Batez ere, kontutan hartu behar da 48.7 artikulua dioena: "Cuando el convenio instrumento una subvención deberá cumplir con lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo, que en su caso, resulte aplicable."

Prozedura, normalean, ofizioz hasiko da. Horretaz gain, prozedura ofizioz edo interesdunak eskatuta hasiko da, kasu hauetan: aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendun bat eman behar denean, eta lege-mailako arauen ondorioz administrazioari ezartzen zaion zuzeneko dirulaguntza bat eman behar denean, baldin eta entitate emailearen eta onuradunen artean hitzarmena sinatu behar bada.

Zuzeneko dirulaguntza emateko prozedura orokorra honako hau da:

A. Departamentuko arduradunak egiaztatu behar du dirulaguntza eskaerak ondoko baldintzak betetzen dituela, zera:

-Eskatzailea den Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoela, eta bere ordezkaria .

-Elkarteen Estatutuetan arautzen den xedea bat datorrela diruz lagunduko diren jarduerekin.

-Elkartea egunean dagoela bere betebeharretan, Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin.



TOLOSAKO
UDALA

-Eskatzaileak erantzunkizunpeko aitorpena aurkeztuko du, dirulaguntza jasotzeko inolako debekurik edo bateraezintasunik ez duela, eta dagokion ordenantzak xedaturiko baldintzak betetzen dituela adieraziz.

Halaber, eskatzaileak zehaztu behar ditu bere eskaeraren jarduerak eta aurrekontua.

Arduradunak txostena egingo du, goian azaldutakoa egiaztatuz. Bestalde, txosten hori egingo du jakiteko ea aurrekontuan diruizendapenik badagoen edo ez dirulaguntza izendun hori emateko.

Zentzu honetan, arduradunak bere txostenean dio Elkarteak beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituela dirulaguntza jaso ahal izateko (aurrekariaren 2.puntuan).Honi buruz kontutan hartu behar da, Tolosako udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorrak bere 10.8.artikuluaren esaten duena:"Inola ere ezingo dute onuradun izaerarik izan Tolosako udalak edo beren erakunde publikoek emandako dirulaguntzak justifikatzeke daudenak, behin justifikazio hori aurkezteko epea bukatuz gero, kontuan hatu gabe DLOren Araudiaren 70.3 artikulua aipatzen duen errekerimendua egin den ala ez. Debeku horren ebaluazioa modu automatikoan egingo da, eta indarrean egongo da justifikazioa aurkeztu arte".Puntu honetan, beraz, kontuhartzaileak egingo duen txostenari heldu behar da.

Dirulaguntzen udal ordenantzako 20.2.b artikulua dio Kontuhartzailearen txostena behar dela.

B. Gobernu Batzarrak erabakia hartuko du.

C Hitzarmena formalizatuko da; bertan jasoko dira emakidadunak dituen betebeharrak eta konpromisoak dirulaguntza aplikatzeko eta justifikatzeko.

D. Ebazpenaren berri emango zaie interesatuei, legeriak agindu bezala eman ere⁴.

E.-Iragarkia Dirulaguntzen Publizitate Sistema Nazionalera igorriko da .Baita gardentasun atarira ere.

F. Dirulaguntza jasotzeko, dokumentazioa aurkeztu behar da haren aplikazioa justifikatzeko. Oinarrietan jasota egongo da zer dokumentazio eskatu.

Prozedurari dagokionez, araututa daude berezitasun batzuk, dirulaguntza motaren arabera⁵. Hori dela eta, hauexek izan behar dira kontuan:

4 39/2015 Legea, urriaren lekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40. eta 41. artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

Aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izenduna eman behar bada, ebazpenak edo, hala badagokio, hitzarmenak puntu hauek jaso behar ditu⁶:

- Zehaztu behar da dirulaguntzaren eta haren onuradunen helburua, aurrekontuko diru-izendapenaren arabera.
- Zer aurrekontu-kredituari egotziko zaion gastua eta dirulaguntzaren zenbatekoa, banan-banan, baldin eta onuradun bat baino gehiago badira.
- Diru-laguntza horren bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekiko, Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio, ente publiko edo pribatuena izan, nazioarteko erakundeena izan.
- Epeak eta moduak dirulaguntza ordaintzeko; ordainketa aurreratzeko edo konturako ordainketak egiteko aukera; onuradunek jarri beharko bermeen arauak.
- Epea eta moduak onuradunak justifika dezan dirulaguntzak bete duela zeukan helburua, eta nola erabili diren jasotako diruak.

Gainera, kontuan izango dira Udal Ordenantzako 18.3 artikuluan jasotako puntuak.

3.-Organo eskuduna: Gobernu Batzordea. Horrela dio 2015/1.278 Alkate Dekretuak "Gobernu Batzarrarengan eskuordetzea ondorengo eskuduntzak: "Dirulaguntzak eta laguntzak, konkurrentzia prozeduraren bidez ematen direnak, salbu Gizarte Ongizateko arautuak"

BiziBiziki, S.L.-k dirulaguntza izenduna jasotzeko baldintzak betetzen ditu

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENEA.- Onartzea *Aktibatu 2019* jardunaldia babesteko Tolosako Udalak Bizibiziki S.L enpresari 8.000 €ko diru laguntza ematea. Lehengo zatia, % 50, dirulaguntza onartu delako jakinarazpenarekin batera eta bigarrena, beste % 50, gastuak justifikatu ondoren.

5 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.

6 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; 65.3 artikulua.



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Aurreko konpromiso eta betebeharrak jasotzen dituen hitzarmena dagokion organoak onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Bizibiziki S.L-ri, Kontuhartzaitzari eta Ingurumen Departamentuari.

5. ONARTZEA TOLOSALDEA GARATZENI 2019. URTERAKO UDAL EKARPENA ETA LEHEN ORDAINKETA EGITEA.

Aurrekariak :

I. 2019ko otsailaren 7an, 1451 sarrera zenbakiarekin, Tolosaldea Garatzen eskualdeko agentziak 2019 urterako ekarpena egiteko eskaera erregistratu zuen.

II. Tolosaldea Garatzenek, 2018ko abenduaren 17an Batzar Orokorrean onartutako Gestio planaren arabera, Tolosako Udalak Tolosaldea Garatzeni egin beharreko 2019. urterako ekarpena bi zatitan egitea erabaki zen eta ondorengo diru kopuruekin:

2019ko Gestio Plana jorrazeko	133.856,71 €
-------------------------------	--------------

Lehenengo ordainketa (2019/03/30ean)	66.928,36 €
--------------------------------------	-------------

III. Tolosako Udaleko 2019ko aurrekontuan 1100.422.01.430.10 partidari aurreikusten da ekarpena egiteko diru kopurua.

IV. -2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17.1.25 artikuluan jartzen duenaren, udalerriek, besteak beste, honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituztela eskumen propioak: tokiko ekonomia eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo politika.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- TOLOSALDEA GARATZENERAKO 2019ko ekarpena onartzea, 133.856,71 € euro.

BIGARRENA.- Lehenengo ordainketa egitea 2019ko martxoaren 30ean: 66.928,36 euro.,



TOLOSAKO
UDALA

HIRUGARRENA.- Erabakiaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta Tolosaldea Garatzen

6. 85/2018, 86/2018, 4/2019 ETA 5/2019 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **85/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **32.156,78 €** da.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-85/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Kontuhartzaitzak **86/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **84,89 €** da.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-86/2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.



TOLOSAKO
UDALA

Kontuhartzailtzak **4/2019** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **36,43 €** da.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **4/2019** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

Kontuhartzailtzak **5/2019** faktura-zerrenda aurkeztu du. Kopuru osoa **105.899,08 €** da.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **5/2019** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 8:30etan.

ALKATEA

JARDUNEKO IDAZKARIA